

ZEINEN GOZOA DEN
LARANJA ZUKUA!
HORI HARTUZ GERO,
NI BAI INDARTSUA. ¹

¹ Ibaizabal argitaletxea.

GORRIA DA TOMATEA,
GORRIA DA PIPERRA.
GORRIA DA SAGAR HAU,
GOXOA ETA EDERRA.²

² Zubia Santillana argitaletxea.

Oharra: olerkiaren bukaera irakurtzen dugun bitartean, egin sagar bat jaten ari garen planta.

Beste gaia: KOLOREAK

SAGARRA, BERDEA,
TOMATE, GORRIA.
BANANA ETA LIMOIA,
HORI-HORIAK. ³

³ Beste gaia: KOLOREAK

NIK ETA ZUK,
ZUK ETA NIK
GAILETAK JAN
DITUGU.
NIK ETA ZUK,
ZUK ETA NIK
ESNEA EDAN DUGU.⁴

⁴ Eskolaurreko Euskararen Programakuntza liburutik (moldatua).

Oharra: “Nik eta zuk, zuk eta nik” esatean, behatzarekin seinalatu. “Gailetak jan ditugu” esatean, gaileta esnetan busti. Eta esan ondoren, “Ñam, ñam” esan. “Esnea edan dugu” esan ondoren, zurrut egin.

NIK EMANDA, GARIA,
ZUK EGINDA, OGIA,
DENDAN SALDUKO,
DENDAN SALDUKO,
ZUK EGINDA, OGIA,
NIK EMANDA, GARIA.

5

⁵ *Haurtxoa Bi* liburutik.

INDARTSU ETA OSASUNTSU
HAZI NAHI BADUT,
DENETARIK, PIXKA BAT,
JAN BEHARRA DAUKAT:
ESNEA, ARRAUTZAK,
HARAGIA, ARRAINA,
DILISTAK, PATATAK,
LETXUGAK, LUTXARBIAK,
LARANJAK, MARRUBIAK,
INTXAURRAK, BANANAK
ETA BAITA OGI
GURIN ETA EZTIAREKIN ERE. ⁶

⁶ *Fantasia* Aizkorri argitaletxea.

Oharra: elikagaien izenak aldatu ahal dira edo gehiago gehitu.

SALTO, BRINKO,
KRISPETA.
SALTO, BRINKO,
NIRETZAT.⁷

⁷ *Fantasia 3* liburua.

Oharra: salto eginez antzeztu.